



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urtarrilaren 30a

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

—11-23/LEY-00007. Foru-lege proiektua, Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzkoa (3. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00013. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da susta dezan hitzarmen bat sinatzea Gobernuaren Ordezkaritzaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren beraren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko eta, behin horiek eginda, horiek jazarri eta ikertzeko urratsak. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (4. or.).

—11-24/MOC-00014. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita erregelamenduz gara dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea. Kevin Lucero Domingues jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-24/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Gardentasun Atarian argitara ditzan ezagutza publikokoak izan behar diren elementu guztiak, barne harturik urteko kontuak, auditoretza- eta fiskalizazio-txostenak, goi-kargudunen eta langileen ordainsariak, kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak, langile kontratatuak eta haien ordainsariak, besteak beste. Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartera aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita etengabeko prestakuntza eguneratua ezar dezan adingabeak babesteko gaitasun digitalen arloan, hezitzaile, guraso, tutore eta zaintzaileei zuzendua. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).

—11-24/MOC-00017. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita, ikusirik Belateko tunelak bikoizteko obren esleipenaren inguruan emandako boto partikularrak, espedientea Administrazio Kontratazioaren Batzordeari igor diezaion, horrek esleipen horren legezkontasunari buruzko txostena jaulki dezan. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).

—11-24/MOC-00018. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Legebiltzarrean Nafarroako ikasleen gaitasunak hobetzeko plan estrategiko bat aurkez dezan. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (11. or.).

- 11-24/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 31. eta 33. artikulua betetzen ez diren bitartean deklaratu duena eten egiten direla onura publikoa aitortzeko administrazio-prozedurak, gauzatu direnak Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikulua babesean eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren babesean, zeinak arautzen baititu. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (12. or.).
- 11-23/MOC-00081. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen adostuak bultzatzen dituzten lanaldia murrizteko proiektu berritzaileak abian jartzeko saiakuntzak egiteari begira. Osoko Bilkurak onetsi du (14. or.).
- 11-24/MOC-00003. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten baitio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta premiatzen baitu Nafarroaren toki-autonomia sustatzen eta defendatzen jarrai dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (15. or.).
- 11-24/MOC-00005. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatzeko prozesua. Osoko Bilkurak onetsi du (15. or.).
- 11-24/MOC-00008. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Moves plana luza dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (16. or.).
- 11-24/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errefusatu dezan edo zein gobernu lortze aldera babesa ematea EH Bilduri edo ETaren terrorismoa gaitzesten ez duen ezein indar politikori. Osoko Bilkurak ezetsi du (16. or.).
- 11-24/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu hizkera inklusiboa delakoaren erabilera ezabatzeke Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere. Osoko Bilkurak ezetsi du (16. or.).
- 11-24/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako Osasuneko aurrekontua handituko duen talka-plan bat ezar dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (17. or.).
- 11-24/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko apustuarekin jarrai dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (17. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- 11-24/POR-00054. Galdera, Microcreds Planari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-23/LEY-00007. Foru-lege proiektua, Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2023ko ekainaren 28an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari. Foru-lege proiektuari dagokionez, Kontuen Ganberak txosten bat egin du, 2024ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizakari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 178. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduran izapidetu dadin xedatzea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2022ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 178. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

**Artikulu bakarra.** Onesten dira Nafarroako 2022ko Kontu Orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorren edukia Nafarroako Atarian ematen da argitara.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00013. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-  
tzen da susta dezan hitzarmen bat sinatzea Gobernuaren Ordezkarit-  
zaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren bera-  
ren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko  
eta, behin horiek eginda, horiek jazarri eta ikertzeko urratsak**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da susta dezan hitzarmen bat sinatzea Gobernuaren Ordezkaritzaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren beraren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko eta, behin horiek eginda, horiek jazarri eta ikertzeko urratsak.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Barneko, Funtzio Publiko-ko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Barneko, Funtzio Publiko-ko eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeak bere helburuen artean ditu, besteak beste, honako hauek: herritarren eskubideak eta askatasunak ziurtatzeko prebentzio- eta babes-politika publiko eraginkorrak ezarri eta gara daitezten sustatzea; lasaitasun publikoari eustea; bizikidetzaren babestea eta gizarte-kohesioa sustatzea; administrazioen, agintarien eta segurtasun publikoarekin zerikusia duten zerbitzuen arteko lankidetzan eta koordinazioan sakontzea; eta bermatzea herritarrek duten eskubidea, segurtasun-zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan modu homogeneoan emanak izatekoa.

Helburu horiek lortzeko, eta Konstituzioan eta Foru Hobekuntzan xedatutakoaren esparruan, Nafarroako Gobernuaren eskumena da –Barne Departamentuaren bidez– Foru Komunitateko herritarren babes eta segurtasunerako politika gauzatzeko ardura, eta berari dagozkio, ildo horretan, Foruzaingoaren goi zuzendaritza, tokiko polizien koordinazioa eta foru lege honetan eta indarra duen gainerako ordenamenduan esleitzen zaizkion beste eginkizunak.

Azken urteotan, Barne Ministerioak kriminalitateari buruz jendaurrean eta hiru hilean behin eskaintzen dituen datuek ohartarazten digute delinkuentzia gora egiten ari dela urtez urte, eta Nafarroako datuak batez besteko nazionala baino okerragoak direla.

Estatistika Institutu Nazionalaren 2023ko hirugarren hiruhilekoko azken datu eskuragarrien arabera, Nafarroako kriminalitate-tasa nazioko batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da, eta UPNren azken gobernu-aldian zegoena baino 14,3 puntu handiagoa.

51,8 delitu 1.000 biztanletik kopuru benetan kezagarria da, baita sexu-askatasunaren aurkako delituen edo giza hilketaren saiakuntzakoen iguera itzela ere.

Ezin ditugu begiak itxi errealitate horren aurrean, eta horregatik garrantzitsua da hainbat esparrutik jardutea eta delituen jazarpen eta ikerketaren eraginkortasuna hobetzea koordinazio egokiaren bidez eta, bereziki, delituen prebentzioa hobetzea ekarriko duten formula berriak bilatuta.

Koordinazioari dagokionez, garrantzitsua da heltzea delituak prebenitzeko jardute-moduari eta horien ikerketan tokiko polizia duten parte-hartze moduari. Horretarako, aintzat hartu behar den aurrekari bat dago, Barne Ministerioak eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioak polizia judizialaren arloan 2007ko otsailaren 20an sinatutako esparru-hitzarmena hain zuzen, zeina erakusten ari baita eraginkorra dela arau-hauste penalei aurre egiteko baliabideak egoki koordinatuz eta modurik efizienteenean erabil daitezkeen.

zen lortzeko; horrek, era berean, polizia-baliabideak prebentzio-zereginetarako libre uztea ahalbidetzen du.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan hitzarmen bat sinatzea Gobernuaren Ordezkaritzaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren beraren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko eta, horiek jadanik egin direnean, horiek jazarri eta ikertzeko urratsak, ikerketa judizialaren arloan beterik Polizia Judiziala Koordinatzeko Batzorde Nazionalak ezartzen duena.

2. Xedatzea Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea izanen dela mozioaren jarraipena egiteko batzordea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **11-24/MOC-00014. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregelamenduz gara dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erregelamenduz gara dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez premiatzen baita LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea erregelamendu bidez gara dadin. Mozioaren jarraipena Lehendakaritzako eta Berdintasuneko Departamentuari dagokio.

Zioen azalpena

2017ko ekainean, Legebiltzar honek LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako 8/2017 Foru Legea onetsi zuen. Foru lege hori, bera babestu zuten talde parlamentarioen eta gure erkidegoko LGTBI+ elkarten arteko adostasunetik sortu zen, eta berari esker, Nafarroa abangoardian jarri zen Nafarroako LGTBI+ pertsonen eskubideen eta berdintasunaren defentsan.

Gai aipagarrien artean, foru lege honek transexualen despatologizazioa ezartzen du, LGTBI+ pertsonen aldeko neurriak ezartzen ditu hezkuntzaren, lanaren, familiaren, aisialdiaren, kulturaren eta kirolaren, gazteriaren eta abarren arloetan, eta, gainera, arautu egiten ditu Administrazioak Nafarroako LGTBI+ pertsonen tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko jarraitu beharreko jarduketak. Era berean, LGTBI+ arloan Nafarroaren administrazio-antolaketa arautzen du, eta LGTBI+ Berdintasunerako Organo Koordinatzailea sortu zuen, gaur egun Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren barruan dagoen LGTBI+ zuzendariordetza dena.

Foru lege aitzindari horrek berekin ekarri du legedian aurreikusitako jarduketetarako Ekintza-plan bat, zeina 2019tik 2022ra garatu baitzen eta abiarazi egin baitzuen Nafarroako Parlamentuak partaidetza joriz onetsi zuen lege horretan jasotako guztia.

Horren guztiaren ondorioz, Gobernua babesten duten taldeek 2023-2027 legegintzaldirako sinatutako programa-akordioak “dibertsitatea” atalean legegintzaldi honetan garatu beharreko ekintza gisa jasotzen du, hitzez hitz, “LGTBI+ zuzendariordetza sendotzea Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren barnean. Giza baliabide gehiagoz hornitzea, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legearen aginduak betetzen jarrai dezan”.

Hala ere, legediaren garapen osoa, han jasotako politiken ezarpen osoa eta LGTBI+ zuzendariordetzaren finkatzea lortu ahal izateko, eta LGTBI+ pertsonen berdintasun osoan lanean jarraitzeko, beharrezkoa da foru legea erregulamendu bidez garatzea, eta garapen horretan jorritzea langintza guzti horretarako funtsezkoak diren kontuak, hala nola legearen zehapen-araubidearen garapena edo zerbitzuko pertsona transexualeri arreta emateko Nafarroako Gobernuaren Kattalingune zerbitzuaren instituzionalizazioa –Foru Dekretuzkoa–.

Horregatik guztiatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2024an zehar erregulamendu bidez gara dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu legearen erregulamenduzko garapena partaidetzaz egin dadin Nafarroako LGTBI+ Kontseiluaren baitan, 2017an foru lege hori bultzatzean nagusi izan zen partaidetza-espirituari jarraipena emate aldera.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## **11-24/MOC-00015. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Gardentasun Atarian argitara ditzan ezagutza publikokoak izan behar diren elementu guztiak, barne harturik urteko kontuak, auditoretza- eta fiskalizazio-txostenak, goi-kargudunen eta langileen ordainsariak, kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak, langile kontra- tatuak eta haien ordainsariak, besteak beste**

### *VOX NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Gardentasun Atarian argitara ditzan ezagutza publikokoak izan behar diren elementu guztiak, barne harturik urteko kontuak, auditoretza- eta fiskalizazio-txostenak, goi-kargudunen eta langileen ordainsariak, kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak, langile kontratatatuak eta haien ordainsariak, besteak beste.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, datorren otsailaren 1eko Osoko Bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko:

Nafarroak, bere berezitasun ugarien artean, 1365. urteaz geroztik Nafarroako Kontuen Ganbera dauka, Espainiako kontu-auzitegirik zaharrena, Karlos II.a erregeak ordenantza baten bidez eratu gastu publikoa kontrolatzeko. Gardentasuna eta nafar guztien baliabideen eraentza ona bermatzen dituen erakundea dugu hori.

Zuzenbide estatu batean diru publikoaren kontrola eta kudeaketa funtsezkoa da Administrazio Publikoaren efizientzia ebaluatzeko, bai eta arrazionalizazio eraginkor bat eta helburuen betetze-

maila egiaztatzeko ere. Herritarrei begira, ezinbestekoa da gardentasun-ataria eta auditoretza horiek eguneratuak izatea, eta nafarrek ikuspegi argi bat edukitzea ere.

Horrenbestez, Nafarroan baliabide publikoak banatzeko asmoz, talde parlamentario honek – Legebiltzarreko Erregelamenduren 229. artikuluan xedatutakoaren babesean– 2024ko urtarrilaren 12an eskatu zuen Kontuen Ganberak Nafarroako Berdintasunerako Institutuari buruzko auditoretza-txosten bat egin zezala. Lan horren helburua litzateke Nafarroako Berdintasunerako Institutuak honako hauetara bideratuta dauden baliabideekin egin duen kudeaketa aztertzea: genero-berdintasunerako politikak, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduketa orohartzaileko neurriak, eta LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako politikak (2020 - 2023).

Hori esanda, eta ikusita Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten duela Kontuen Ganberaren bidez Institutu horri buruzko auditoretza egitea, Voxek uste du ezinbestekoa dela gastu publikoaren eraginkortasuna hobetzea, nafar eta espainiarren ongizateari laguntzen ez dion diru-xahuketa drastikoki murriztuz. Printzipio hori Espainiako Konstituzioaren 31. artikuluan jasota dago, non esaten baita gastu publikoak ekitatez esleituko dituela baliabide publikoak, eta horien programazioak eta exekuzioak efizientzia- eta ekonomia-irizpideei erantzunen dietela.

Kontuan hartuta 2024ko ekitaldirako aurrekontuen Lege-proiektuan Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sei milioi eta erdiko aurrekontua duela, eta gardentasun- eta zorroztasun-beharrekin bat, jakin behar dugu zer egiten den, nola finantzatzen diren eta zertara bideratzen diren diru-sarrera publikoak. Izan ere, gaur egun, institutuaren gardentasun-atarian horiek ez daude ez eguneratuta ez eta xehatuta ere.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Gardentasun Atarian argitara daitezen jendaurrekoak izan beharreko elementu

guztiak, barne hartuta urteko kontuak, auditoretza-eta fiskalizazio-txostenak, goi-kargudunen eta langileen ordainsariak, kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak, langile kontratatuak eta haien ordainsariak, besteak beste.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Eleduna: María Teresa Nosti Izquierdo

## **11-24/MOC-00016. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita etengabeko prestakuntza eguneratua ezar dezan adingabeak babesteko gaitasun digitalen arloan, hezitzaile, guraso, tutore eta zaintzaileei zuzendua**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita etengabeko prestakuntza eguneratua ezar dezan adingabeak babesteko gaitasun digitalen arloan, hezitzaile, guraso, tutore eta zaintzaileei zuzendua.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularrak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Eskubide Sozialetako Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Bizi garen gaurko mundu hau gero eta digitalago eta konektatuago bilakatzen ari zaigu. Teknologia berriak gero eta sofistikatuenak eta aldako-

rragoak dira, eta komunikatzeko, harremanak izateko eta informazioa kontsumitzeko modua aldatu dute.

Tresna berri horiek ezin konta ahala onura eta aukera ematen diguten arren, orobat areagotu dira dauzkagun arriskuak; batez ere, adingabeek dauzkatenak.

Sareko adingabeen babesak kezka handia eragiten du gaur egun, adingabeak gero eta zaurgarriagoak izaki ingurune digitalean dauden arriskuen aitzinean.

Teknologia funtsezkoa bihurtu da haurren eguneroko bizitzan; beraz, ikaskuntzarako eta garpenerako tresna baliotsua izan daitekeen arren, arrisku handiak ere ekar ditzake. Teknologia gehiegi eta oker erabiliz gero, ondorio negatiboak izan ditzake adingabeengan.

Adingabeek internet erabiltzen dutenean dauzkaten arriskuak batzuk baizik ez dira sareko sexu-esplotazioa, jazarpena, cibербullyinga, eduki desegokiekiko esposizioa, sareko indarkeria, adikzio digitala, isolamendu soziala, datuen merkantilizazioa, datu pertsonalen lapurreta eta sareko manipulazioa. Horrez gain, adingabeak adimen artifizialaren eta sareko algoritmoen erabilera okerraren biktima ere izan daitezke.

Arrisku horiek ondorio larriak izan ditzakete adingabeen bizitzan; eta, zenbait kasutan, kalte konponezinak eragin ditzakete haien osasun mental eta fisikoan nahiz trebetasun psikosozialen garapenean.



**Horregatik guztiagatik:**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabeen babeserako gaitasun digitalei buruzko formakuntza etengabe eta gaurkotua ezar dezan hezitzaile, guraso, tutore eta zaintzaileentzat, eta hezkuntza digitaleko programa iraunkor eta gaurkotuak sor ditzan adingabeentzat, besteak beste honako gai hauek jorratuko dituztenak: teknologiarekiko adikzioa, sare sozialen erabilera arduratsu eta begirune-tsua, sareko pribatutasuna, datu-erabilera etikoa, segurtasun zibernetikoa eta adimen artifiziala.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du legez berma dezan adingabeek eduki teknologikoak eskuratzeko mugak handiagoak izatea, eta egin beharreko lege-moldaketak egin ditzan haurren interes gorena izan dadin ingurune digitaletako kezka nagusia.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etengabeko kanpainak egin ditzan adingabeek teknologiaren erabilera desegokia egitearen arriskuaz ohartarazteko, eta neurriak susta ditzan arrisku horiei aurrea hartzeko, adingabeen alfabetizazio digitala sustatuta, batik bat adingabeak babeste eta ingurune digitala kontrolatze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du haur-pornografiaren legezko definizioa zabalagotu dezan, barne hartzearen adingabeak jarrera sexualki esplizituetan erakusten dituzten edo haien intimitateari eragiten dieten Adimen Artifizialezko irudiak.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du adimen artifizialaren erabilari buruzko berariazko arauak ezar ditzan irudiak sortu eta manipulatzeari dagokionez, bereziki adingabeak tartean badira.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abusu-mota horren biktimei laguntza psikologikoa eta legala emateko berariazko programak ezar ditzan, eta biktimek sareko informazio iraingarria ezabatzeko baliabideak eskuratu ahal izatea berma dezan.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabeen pribatutasuna urratzen duten adimen artifizialezko irudiak identifikatzeko detekzio-teknologia aurreratuz horni dezan Foruzaingoa, eta lan hori, gainera, gainerako segurtasun indar eta kidegoekin lankidetzan egin dadin.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **11-24/MOC-00017. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita, ikusirik Belateko tunelak bikoizteko obren esleipenaren inguruan emandako boto partikularrak, espedientea Administrazio Kontratazioaren Batzordeari igor diezaion, horrek esleipen horren legezkotasunari buruzko txostena jaulki dezan**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da, ikusirik Belateko tunelak bikoizteko obren esleipenaren inguruan emandako boto partikularrak, espedientea Administrazio Kontratazioaren Batzordeari igor diezaion, horrek esleipen horren legezkotasunari buruzko txostena jaulki dezan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ezar-tzen duenez, Kontratazio Publikorako Batzordea kide anitzeko organo bat da, bere eginkizunetan independentea eta Nafarroako Gobernuan kontra-tazio publikoaren arloko eskumena duen departa-

mentuari atxikia organikoki, xede duena kontrata-zio publikoaren sistemaren jarduna egokia dela zaintzea; hori horrela izan dadin, kontratu publiko-ak esleitzean ilegaltasunik eta jardunbide okerrik egitea ekiditeko zenbait eginkizun ditu esleiturik.

Besteak beste, foru legearen 119.4 artikulua-ren c) letran ezarritakoa; alegia, kontratazio publi-koari eragiten dioten auziei buruz informatzea, esleipen-botereek, besteak beste, eskatuta.

Eginkizun hori bereziki garrantzitsua da zenba-teko handiko kontratuen edo ustez irregulartasu-nen bat gertatu den kontratuen kasuetan.

Belateko tunelak bikoizteko obren kontratuaren esleipenean –non, obren zenbatekoa zela-eta, Administrazio Kontratazioko Batzordeko kide bat egon baitzen Kontratazio Mahaian–, hiru boto par-tikular eman ziren Mahaiak esleipena proposa-tzeko irizpidearen aurka –zehazki, Mahaiko idaz-kariarena, kontu-hartzailearena eta Kontratazio Batzordearen ordezkariarena berarena–, haien ustez ordenamendu juridikoa urratzen zelako aipatu esleipenean, motibazio faltagatik eta ber-dintasun nahiz gardentasun printzipioak urra-tzeagatik.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-propo-samen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premia-tzen du, ikusirik Belateko tunelak bikoizteko obren kontratuaren esleipenaren ingu-ruan emandako boto partikularrak, espedientea Administrazio Kontratazioko Batzordeari igor die-zaion, horrek txostena jaulki dezan esleipen horren legezkotasunari nahiz boto partikularretan adierazi ziren gainerako auziei buruz.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean.

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

## 11-24/MOC-00018. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Legebiltzarrean Nafarroako ikasleen gaitasunak hobetzeko plan estrategiko bat aurkez dezan

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Legebiltzarrean Nafarroako ikasleen gaitasunak hobetzeko plan estrategiko bat aurkez dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Berriki aurkeztu den PISA azterlanak agerian jarri du berriz ere gure erkidegoko hezkuntza etengabe egiten ari dela okerrera azken 10 urteotan. Okerrera ez soilik kalitate-mailan, ezpada gure hezkuntza-sistemak beti erakutsi duen ekitate-mailan ere; izan ere, gure hezkuntza-sistema urte askoan izan da ikasleen arteko desberdintasun indibidualak –haien jatorria edo egoera sozioekonomikoak direla-eta– hobekien konpenstatzen zituen sistema.

2015az gozotik, Nafarroan gobernu nazionalista bat iritsi baitzen boterera, hezkuntzak bere erreferentzia-maila galdu du jardunbide egokien eredu gisa, bai nazioan, bai nazioartean ere. Nabarmenki politikoak diren helburuei erantzunen

dien hezkuntza-sistema bat tankeratzeko obsesio nazionalisten ondorioz, bai eta Nafarroako Alderdi Sozialistak oinarritzko askatasun bati, nola baita familiek beren seme-alaben hezkuntzaren gain daukaten hautatze-askatasuna, eraso egiteko saio etengabea egitearen ondorioz, estatu totalitarioek berezko duten curriculum zeharo ideologikoa inposatzearen alde, gure hezkuntza-sistema halako maila batera jaitsi da non jada ez baitu aurrerapen pertsonala eta soziala bermatzen. Ez du jadanik balio pertsona guztiei aukerak emateko.

Beste une batzuetan, UPNren gobernuak oso argi izan zuten plan estrategikoak ezarri behar zirela, ikasleen oinarritzko gaitasunak indartzeko balioko zutenak, batez ere eskola-arrakastaren oinarri diren bi horiek: Hizkuntza eta Matematikak. Horrez gain, elkarbizitzaren eta eskola-inklusioren aldeko ahalegin handia egin zen, aniztasunaren arretarako neurrietan aitzindariak izan ginen, eta horri esker, Nafarroako hezkuntzak Estatuko ekitate-mailarik altuena lortu zuen.

Gaur ez dugu ez kalitaterik, ez ekitaterik, ezta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzerik ere. Eta jakina, ez dugu gure hezkuntza-sistema hobetzeko plan espezifikorik; eta hori, azken urteotan % 50 handitu den arren Hezkuntzara bideratutako aurrekontua.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du 2023/2024ko ikasturtea amaitu aurretik Legebiltzarrean aurkez dezan Nafarroako ikasleen gaitasunak hobetzeko plan estrategiko bat, honako hauek jasotzen dituenak: lortu nahi diren helburuak; horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak; hezkuntza-maila bakoitzean ezarri beharreko neurriak; horiek gauzatzeko epeak; eta hezkuntza-komunitate osoak parte hartzeko modua, bakoitzak planean bere ardura-maila izanda.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

**11-24/MOC-00019. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 31. eta 33. artikulua betetzen ez diren bitartean deklaratu duena eten egiten direla onura publikoa aitortzeko administrazio-prozedurak, gauzatu direnak Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikulua babesean eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren babesean, zeinak arautzen baititu Energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkaturatze, hornidura eta instalazio-baimentze prozedurak**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-lege proiektu bat aurkez dezan, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 31. eta 33. artikulua betetzen ez diren bitartean deklaratu duena eten egiten direla onura publikoa aitortzeko administrazio-prozedurak, gauzatu direnak Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikulua babesean eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren babesean, zeinak arautzen baititu Energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkaturatze, hornidura eta instalazio-baimentze prozedurak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, datorren otsailaren 1eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

ZIOEN AZALPENA

Klima-aldaketa errealitatea da, eta haren ondorioak jadanik nabarmenak dira gaur egun. Guztiz beharrezkoa da ekonomia deskarbonizatzeko, berotegi-efektuko gasen emisioak zorrotz murriztea eta Nafarroako Foru Komunitatean, Europan eta munduan ezarri diren ingurumen-helburuak lortzea:

– Parisko Akordioaren arabera, berotze globala 1,5 °C-tik behera geratu behar da.

– 2030erako, kontsumituko energia guztiaren % 50 jatorri berriztagarrikoa izanen da.

– 2050erako, erabateko deskarbonizazioa lortu nahi da.

Horretarako, orain arte ez bezalako eta irismen handiko trantsizioa behar da energia-sisteman, garraioan, industrian, nekazaritzan, gure eguneroko bizitzan. Ezinbestekoa eta premia-zkoa da energia-kontsumoaren mailak murriztea, autokontsumoa sustatzea eta energia berriztagarrien garapena bultzatzea, zeinek jatorri fosileko energia ordeztu beharko dituzten pixkanaka.

Azken urteotan, energia berriztagarria sortzeko instalazio handien ugaritze aurrekarigabea ikusten ari gara, eta horien titulartasuna subjektu pribatuei eman zaie. Nafarroan, 2019ko apiriletik 2023ko urrira arte, energia eoliko berriztagarria ekoizteko instalazioetarako 78 proiektu aurkeztu dira, guztira 1.440 MW-eko potentziakoak, eta energia fotovoltaiko berriztagarria ekoizteko 89 proiektu, guztira 1.280 MW-eko potentziakoak.

Aldez aurreko planifikaziorik egin gabe elementu horiek ugaritzeak aldrebestu egiten ditu bertako baso, mendi, zelai eta haranak Nafarroako Foru Komunitatean, non nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak paraje naturalekin eta inguratzen gaituen lurraldeko beste elementu berezi batzuekin batera aurki baitaitezke.

Energia sortzeko instalazio handi horien proiektuak interes orokorreko ustezko jarduera batean oinarritzen dira, independentzia energetikoaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren ildoekin bat. Hala ere, proiektu horien titulartasuna subjektu pribatuei ematen zaie eta, horrenbestez, interes hori, neurri handi batean, sustatzaile jakin batzuen mesedetan doa.

Gainera, proiektu handi horietako asko nekazaritza-lursailetan kokatzen dira, eta horietan aurrez lursail-berrantolamendua egin edo ureztalurrak modernizatu dira, nekazaritza-produktibitatea hobetzeko asmoz.

Era berean, ekimen pribatuko makroazpiegitura-proiektuak izapidetzen ari dira, beste autonomia-erkidego batzuetan sortutako elektrizitatea garraiatzekoak, ingurumen-, paisaia- eta arkeologia-eragin ezin larriagoak dituztenak, baita gure biodibertsitate eta lehen sektorearentzako arrisku handiak ere. Nafarroako dozenaka toki-erakundek alegazioak aurkeztu dituzte proiektu horietako batzuen aurka. Kasuren batean, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere aurkako txostenak jaulki ditu.

Energia berriztagarriak sortzeko azpiegituren hedapena, beharrezkoa bada ere, egokiro planifikatu eta antolatu behar da, eta biodibertsitatea, ingurumena eta gure luraren erabilera tradizionalak errespetatu behar ditu.

Klima-aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak (2022ko apirilaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2022ko apirilaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) hauxe ezartzen du:

### 31. artikulua. Energia eolikoa

1. Lurraldean modu antolatuan ezartzen direla ziurtatzeko eta balio natural nabarmenen kontserbazioa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak erregelamenduz zehaztuko ditu, gehienez ere urtebeteko epean, energia eolikoko instalazio bat paratzeko modukoak diren edo ez diren lurzoru baimengarriak nahiz debekatuak. Instalazioa ezin baimenduzkoa den lurzoruetan, bakarrik baimenduko dira, salbuespen gisa eta behar bezala justifikaturik, ez Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko I. Eranskinean ez eta II. Eranskinean ere jasorik ez daudenak. Ezarritako lurzoru-kategoria desberdinak azalduko dituen mapa bat erantsiko da.

2. Energia eolikoko instalazioetarako baimengarriak diren lurzoruak zehazterakoan, zenbait mugatze-faktore hartuko dira kontuan; besteak beste, ingurumenari eta paisaiari dagozkionak,

nekazaritza-ekoizpenekoak, kultur ondarearen kontserbazioak, lurralde-antolamendu eta hirigintza-plangintzakoak, natur arriskuak eta lehendik dauden nahiz egitasmoetan jasota dauden azpiegituren zortasunak.

3. Haize-parkeen jabe diren enpresek lagundu beharko dute haien instalazioen gainean faunaren hilkortasunari buruz eta ingurumen arloko arrisku-egoerei buruz ingurumen eskumena duen departamentuak egiten duen jarraipenean. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko ditu lankidetz-formula horiek.

### 33. artikulua. Energia fotovoltaikoa.

1. Eguzki-energiako instalazioak lurraldean modu antolatuan ezartzen direla ziurtatzeko eta balio natural garrantzitsuenen kontserbazioa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak, gehienez ere urtebeteko epean eta erregelamendu bidez, ingurumenaren, hirigintzaren eta nekazaritza-ekoizpenaren alorreko eta beste edozeinetako irizpide objektiboak ezarriko ditu, non zehaztuko baitira energia fotovoltaikoko instalazioak ezartzeko baimengarriak diren nahiz debekua duten lurzoruak. Instalazioa ezin baimenduzkoa den lurzoruetan, bakarrik baimenduko dira ez Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko I. Eranskinean ez eta II. Eranskinean ere jasorik ez daudenak. Ezarritako lurzoru kategoriak azalduko dituen mapa bat erantsiko da.

2. Eraikitzen diren etxebizitza babestu berrietan iturri berriztagarriko energia-instalazioak ipini beharko dira nahitaez. Baldintzak eta ehunekoak erregelamendu bidez zehaztuko dira, eta honen salbuespenak ere bai.

3. Lehendik dauden azpiegiturretan kokatzen ahalko dira energia fotovoltaikoa ekoizteko instalazioak, interes orokorrekoak izan ala ez, baldin eta azpiegitura horiekin bateragarriak edo osagarriak badira”.

Legean ezarritako epeak modu nabarmenean gainditu direnez aipatua bete gabe, eta aurretik azalduko aintzat hartuta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du foru-lege proiektu bat aurkez dezan, Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko Foru Legearen 31. eta 33. artikulua betetzen ez diren bitartean deklaratzeko aldera eten egiten direla onura publikoa aitortzeko administrazio-prozedurak, gauzatuak Elektrizitate-sektoreari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikulua babesean eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren babesean –

zeinak arautzen baititu energia elektrikoa sortzeko instalazio elektrikoari eta horiek husteko azpiegitu-  
rei dagozkien energia elektrikoaren garraio, bana-  
keta, merkaturatze eta hornidurarako jarduerak  
eta energia elektrikoaren instalazioak baimentzeko  
prozedurak, zeinak ebaztea Nafarroako Foru  
Komunitateari baitagokio.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako  
Gobernua premiatzen du, Klima-aldaketari eta  
energia-trantsizioari buruzko Foru Legearen 31.  
eta 33. artikulua betetzen ez diren bitartean, eten  
ditzan lurzoru urbanizaezinetan erabilera- eta jar-  
duera-baimenak emateko administrazio-prozedura  
guztiak, energia elektrikoa sortzeko instalazio  
elektrikoari eta horiek husteko azpiegitu-  
rei buruzkoak, kanpoan utzita energia elektrikoaren

autokontsumorako instalazioak, Sektore Elektriko-  
ari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen  
9.1.a) artikulua arabera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako  
Gobernua premiatzen du eskura dituen urrats poli-  
tiko eta juridiko guztiak egin ditzan, Estatuaren  
aurrean baliarazte aldera, ministerioek (Trantsizio  
Ekologikorako eta Erronka Demografikorako  
Ministerioak) izapidetzekoak diren proiektuetan,  
toki-erakunde ukituen eta gai horretan eskumena  
duten Nafarroako Gobernuaren Departamentuen  
jarrera.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## **11-23/MOC-00081. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen adostuak bultzatzen dituzten lanaldia murrizteko proiektu berritzaileak abian jartzeko saiakuntzak egiteari begira**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-  
luan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Par-  
lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko  
urtarrilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren  
bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eki-  
men adostuak bultzatzen dituzten lanaldia murrizteko  
proiektu berritzaileak abian jartzeko saiakuntzak  
egiteari begira. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua premiatzen du, ahalik eta lasterren itunpeko  
ekimenak abian jar ditzan, lan-denbora murrizteko  
proiektu berritzaileak abiarazteko saiakerak egin  
daitezten enpresaren esparruan (4 eguneko astea  
edo lanaldia murriztea)".

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00003. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten baitio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta premiatzen baitu Nafarroaren toki-autonomia sustatzen eta defendatzen jarrai dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urtarrilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa berresten baitio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta premiatzen baitu Nafarroaren toki-autonomia sustatzen eta defendatzen jarrai dezan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren

1982an sortu zenetik aurrera eramaten duen lana, toki-autonomia sustatu eta aldeztekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gaur egun Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa dela Nafarroako toki-entitateen multzoaren ordezkari Nafarroako Gobernuaren, Parlamentuaren beraren eta ehundura sozial eta ekonomikoaren aurrean zilegitasunez obratzeko”.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00005. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita abian jar dezan Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatzekeo prozesua**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urtarrilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita abian jar dezan Haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatzekeo prozesua. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– 2024an abian jar dezan foru legean jasotako haur eta nerabeen erakunde komunitarioak egiaztatzekeo prozesua.

– Sustatu dezan foru legean jasotako profesionalen prestakuntza haur eta nerabeen babeseko metodologia komunitarioan.

– 2024an sor dezan foru legean jasotako haur eta nerabeen arreta komunitarioa eta sareko lana sustatzeko batzordea.

– Sustatu dezan foru legean jasotako arlo komunitarioko babes-mahaien eraketa.

– Aurrekontuetan partida bat bateratzera, haur eta nerabeen babeseko metodologia komunitarioa garatzera bideratua.

– Zehaztu dezan Nafarroako Gobernuak zein administrazio-organok izanen duen eskumena haur eta nerabeen babeseko metodologia komunitarioaren garapena sustatu eta laguntzeko, bide-nabar eginkizun hori betetzeko behar diren baliabideak emanez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00008. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Moves plana luza dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urtarrilaren 18an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Moves plana luza dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Moves Plana luza dezan, edo, bes-

tela, antzeko ezaugarriak dituen programa bat abian jar dezan, herritarrei pizgarriak emateko beren errekuntza-ibilgailuak hibridoekin edo erabat elektrikoekin ordeztuz ditzaten”.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/MOC-00001. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errefusatu dezan edozein gobernu lortze aldera babes ematea EH Bilduri edo ETaren terrorismoa gaitzesten ez duen ezein indar politikori**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errefusatu dezan edozein gobernu lortze aldera babes

ematea EH Bilduri edo ETaren terrorismoa gaitzesten ez duen ezein indar politikori. Mozioa 2024ko urtarrilaren 16ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu hizkera inklusiboa delakoaren erabilera ezabatzeko Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu hizkera inklusiboa delakoaren erabilera ezabatzeko Nafarroako Parlamentuko dokumentu ofizial guztietan, bai eta

legebiltzar honek zuzenean edo zeharka parte hartzen duen dokumentu, liburuxka, informazio, prentsa-ohar eta abarretan ere. Mozioa 2024ko urtarrilaren 16ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**11-24/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako Osasuneko  
aurrekontua handituko duen talka-plan bat ezar dezan***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentario-ko Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako Osasuneko aurrekontua

handituko duen talka-plan bat ezar dezan. Mozioa 2024ko urtarrilaren 16ko 5. Nafarroako Parlamen-  
tuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-24/MOC-00010. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita mendekotasuna artatzeko kalitatezko sistema bat eraiki-  
tzearen aldeko apustuarekin jarrai dezan***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-  
tario-ko María Olga Chueca Chueca andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita mendekotasuna arta-  
tzeko kalitatezko sistema bat eraikitzearen aldeko

apustuarekin jarrai dezan. Mozioa 2024ko urtarri-  
laren 16ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari  
Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00054. Galdera, Microcreds Planari buruzkoa***KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Microcreds Planari buruzkoa buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak otsailaren 2ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eragin izanen du Nafarroan Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren Microcreds Planak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---



